

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

LETREN FAKULTATEA



FACULTAD DE LETRAS

# MUSIKARIEN IRUDIKAPENAK NAFARROAKO ERDI AROKO ESKULTURAN

AITOR PEREZ MANGADO

ARTEAREN HISTORIA

Tutorea: JUAN JOSÉ USABIAGA URKOLA

2016/2017 ikasturtea

Artearen eta Musikaren Historia Saila

## AURKIBIDEA

|   |           |
|---|-----------|
| <b>LABURPENA</b> .....                                    | <b>2</b>  |
| <b>SARRERA</b> .....                                      | <b>3</b>  |
| <b>METODOLOGIA</b> .....                                  | <b>5</b>  |
| <b>MUSIKA ERDI AROKO NAFARROAN</b> .....                  | <b>7</b>  |
| Musika arlo erlijiosoan.....                              | 8         |
| Musika arlo zibilean .....                                | 8         |
| <b>MUSIKARIEN IRUDIEN ANALISIA</b> .....                  | <b>10</b> |
| Musikariak Apokalipsian .....                             | 10        |
| <i>Lizarrako San Migel Eliza</i> .....                    | 11        |
| Musikariak Jesusen Gurtzan (Epifania) .....               | 15        |
| <i>Erriberriko Andramariaren errege-eliza</i> .....       | 16        |
| <i>Iruñeko Katedraleko Jacques Peruten Epifania</i> ..... | 19        |
| Musikarien ikonografia bereziak.....                      | 23        |
| <b>ONDORIOAK</b> .....                                    | <b>26</b> |
| <b>BIBLIOGRAFIA eta WEBGRAFIA</b> .....                   | <b>27</b> |

## LABURPENA

Erdi Aroan musika eguneroko kontua zen, baita Nafarroako Erresuman ere. Bai errito erlijiosoetan zein errege-ospakizun eta festa zibiletan, musikariak zeuden horietan guztietan. Hain zuzen, musika hori egunerokotasuneko bi esparrutan ikus zezakeen Erdi Aroko edozeinek, nobleetatik hasita baserritar xumeeneraino: zuzeneko esparruan (kaleko musikariak eta errito erlijioso eta zibiletan) zein irudigintzan (eskultura eta pintura). Gauzak horrela, musikarien irudikapenak Nafarroan ugariak dira, ehunka zenbatu daitezkeenak. Halaber, ez da orain arte gaiaren inguruko azterketa ezta monografiarik plazaratu, soilik zenbait lekutan (Iruñea edota Lizarra eta Tuterako merindadeetako adibideekin) ageri diren musikarien katalogo modukoak argitaratu dira. Beraz, lan honetan ikuspegi orokorra azaltzen da, ezin baitira Erromanikoan zein Gotikoan ageri diren musikarien irudi guztiak aztertu. Interesgarria litzateke irudi hauek zein ikonografiatan ageri diren aztertzea, eta horrela planteatua dago lana.

Hasteko, Apokalipsiaren irudikatzean ageri diren musikarien adibideak daude, esanguratsuena Lizarrako San Migel elizako aturrean dauden agure-musikariena izanik. Bertan musika-tresnak modu tekniko bikainean zizelkatuak izan ziren (nahiz eta batzuk kontserbazio okerra izan duten), baita tresna horien azterketarako irudi bilakatu dira ere. Bestalde, Jesusen Gurtzaren irudiei dagokienez, Erriberriko Andramariaren Errege-elizako aturreko artzain-musikariak dira aipatzekoak, tresna herrikoien adibiderik argiena izanik. Bestalde, honen harira ere, Iruñeko Katedraleko klaustroan dagoen Epifaniaren inguruan dagoen aingeruen arkibolta, aingeru-musikariak izanik, musika-tresnen aberastasuna anitza da, sokazko zein haizezko musika-tresna ezberdinen adibideak agertuz. Gainera, irudi hauen kalitatea bikaina izanik, instrumentuen berreraikitzeak egin dira azken urteetan zehar, Konpostelako Loriaren Aturrean arestian egin zen bezala. Azkenik, bere esangura historiko eta kulturalarengatik garrantzitsuak diren zenbait irudi aipatzen dira, Lizarrako Nafarroako errege-erreginen jauregiko asto arpa-jotzailea, Olivako Monasterioko (Zarrakaztelu) txistularia, edota Uxueko bi kornamusa-joleak.

Honekin guztiarekin, musikarien irudikatzea zabala eta anitza dela azpimarratzekoa da, baita artegileek izan zuten askatasuna ere musika-tresna ezberdinak irudikatzerako orduan.

Lehenik Iruñeko Erresuma eta ondoren Nafarroako Erresuma izenekin ezagututako administrazio politiko honetan ere, orduko erreinu eta erakundeek izan zuten legez, Gortean musika eguneroko kontua izaten zen. Nafarroaren kasuan, are ezaugarritzakoagoa bilakatzen da kontua, Donejakue Bidean guztiz sartua dagoen esparrua, ipar zein mendebaldetik etorritako eragin eta bisitariak milaka izan ziren bere garaian. Espero behar duguna da, beraz, Erdi Aroko ikuspegi kulturala oso aberatsa eta anitza izan zela, batez ere XII.-XIII. mendeetan, non erromesen bideak bere garairik gorenena bizi izan zuen<sup>1</sup>. Bestetik ere, Nafarroako Gortean frantziar jatorriko errege-erregitek ezartzean, kulturen nahastea ere gauzatu zela esan daiteke, iparraldeko lurretatik etorritako musikari, juglare eta baita artegile ugari ere, unerik gorenena Karlos III.a erregearen garaian izanik<sup>2</sup>.

Musikaren presentzia nabaria zen, beraz, Erdi Aroko egunerokotasunean. Funtzio erlijioso zein zibiletan era askotako musikak jotzen ziren, herri xeheak berak zuzenean entzuten zituenak. Bestetik, festa eta errito egunetan, zein eguneroko merkatu eta ferietan karriketan gora eta behera ibiltzen ziren kaleko musikari eta antzerkigileek ere kantu zein musika-tresna ugari erabiltzen zituzten, hauek ere guztiz ikusgai zirenak, bada<sup>3</sup>. Zuzeneko elementua eta hainbesteko presentzia izanik, ez da harritzekoa egun arte iritsi zaizkigun zenbait elementutan agertzea.



**1. IRUDIA.** “Batasunaren Pribilegioa”-ren dokumentuan ageri den zaldiko-musikaria.

Gauzak horrela, adibiderik nabariena jarraian azalduko dena litzateke. Iruñeko hiria hiru auzo (burgu) ezberdinetan banaturik zela, 1423 urteko irailaren 8an Nafarroako Karlos III.a erregeak euren arteko batasuna agindu, eta hiri bakar bateko administrazioa sortu zuen<sup>4</sup>. Gaur egun ere, hiriko ospakizun zibiletan garrantzi handiko eguna da, hiriaren historia era bat aldatu zuena, alegia. Hiru auzoak batzeko dokumentu luze bat sinatu

<sup>1</sup> LÓPEZ-CALO, J., *La música medieval en Galicia*, A Coruña, Pedro Barrie de la Maza Fundazioa, 1982, 72 orr.

<sup>2</sup> Gotikoaren amaierara arte ez da *artista* hitza literaturan erabiliko eta, zilegitasuna mantenduz, *artegile* egokiago litzateke, testuinguru honetan ezarriz, noski.

<sup>3</sup> ANGLÉS, H., *Historia de la música medieval en Navarra*, Iruñea, Nafarroako Foru Diputazioa, 1970, 133 orr.

<sup>4</sup> CARRASCO PÉREZ, J. (zuz.), *Historia ilustrada de Navarra 1. Edades Antigua y Media*, Iruñea, Diario de Navarra, 1993, 245 orr.

zen, “Batasunaren Pribilegioa” izenarekin ezagutzen dena, hiriko antolakuntza, bandera berria eta gainerako datuak aurkeztuz. Horrela, pergaminoaren albo batean, marrazkitxo bat pintatu zen: zaldiz jantzitako musikari bat, juglare bat izan zitekeena, kornamusa edo gaita jotzen (ikus 1. irudia). Guztiz nabarmentzekoa da, beraz, hiriaren birsortzearen dokumentu ofizialean, oraindik ere legezkoa den dokumentua eta hain esangurazko errege-izaerako dokumentu batean musikari bat agertzea eta ez, kasu, edozein beste irudirik ere<sup>5</sup>. Guztiz azpimarratzekoa da esangura hau, musikaren garrantzia zelakoa izan zen non, erregeak berak sortutako eta sinatutako dokumentu batean bertan, hiriaren lege berriaren horretan, marrazki baten bidez, musikaren presentzia nabarmendu nahi izan zela. Akaso, hiriaren batasuna ospatu zen egun horretan musikariak egongo ziren kalez kale Iruñearen eguna alaituz.

Gaiari dagokionez, tokian ere musikaren garrantzi hori azalduta, arte-adierazpenetan egin ziren irudikatzeetan bere presentzia guztizkoa izan zela ez da arraroa. Bai eskultura zein erliebe, horma-pintura eta taula eta erretauletan, miniatura eta marrazkietan, baita leku zenbaitetan aurkitu diren objektu txikiagoetan ere, hauetan guztietan musikarien agerpenak oso ugariak dira. Erlijio kristauak ia era bat araututako irudikatzeetan, beti bazuten hala edo nolako modurik, ikonografiak uzten zituen askatasun-puntuak bailiran, pertsonaiaren bat musika-tresna bateren bat jotzen agertzeko. Gurean, ugariak dira Erdi Aro osoan zehar irudikatutako musikariak, baina gehiegi ez luzatzearen eta bere emaitzarik esanguratsuena izanik, eskultura monumentalera joko dugu. Esanguratsuena, izan ere, hauxe zen herri eta hirietako baserritar pobreenak ere ikus zitzakeen eskultura ia bakarrak. Eta hauetan ere, bada, musikariak. Ez gara soilik, gainera, Erromaniko zein Gotikoan geratuko, Erdi Aro osoko panorama ikusiko dugu, adibide zenbaitetan geratuz. Ezta ere ez diot “*Nafarroako ataurreetan...*” izena ezarri, gutxi badira ere, eraikin zibiletan txertatzen ziren erliebeetan ere musikariak agertzen direlako. Gauzak horrela, ondorengo iturrien inguruko atalean ikusiko den legez, asko landu ez den gaia izanik, lehen begi-bista bat proposatzea egokia iruditu zait, egunerokotasunean bizi zitekeen zerbait (zuzeneko musika) egunerokotasun horretan ikus zitekeen beste horretan ere (eskultura monumentala) agertzen dela adierazteko. Bestetik ere, ondoren sakonki aztertuko den bezala, Nafarroa lurralde oparo eta aberatsa izanik, erromesen zaparrada horren

---

<sup>5</sup> IRIBARREN, J. M., “Estampas del Folklore navarro”, *Príncipe de Viana*, 17, Iruñea, Príncipe de Viana Instituzioa, 1944, 419 orr.

eraginez, tresneriaren aldeko barietatea nabaria izan zen, eta eskulturan bere isla zuzena edukiko du. Askatasun horren baitan, askatasuna izan zuten, beraz, artegileek modu enpirikoan ikusten zuten musikarien irudiak txertatzeko. Ikus dezagun, beraz.

## **METODOLOGIA**

Gai zabal baina zehatza den honetan espezifikokoak diren lanak eta publikazioak aurkitzea zaila dela suposa dezakegu, beraz. Halaber, beste zenbait probintzietan egin den antzera, Nafarroan ere aurki ditzakegu argitalpen zenbait, non gaiaren inguruko datu eta hausnarketak plazaratzen diren.

Bibliografiarik zehatzena, gaiari lotuta, Clara Fernandez-Ladredak 2004. urtean argitaratutako *Iconografía musical de la Catedral de Pamplona* liburuxka dugu<sup>6</sup>. Jorrazten ari garen lan honen antzerako argitalpena, Iruñeko Katedralean ageri diren musikarien irudien katalogo bat dela esan daiteke, eta bertan ere ageri diren zenbait musika-tresnen inguruko datuak ere azaltzen dira. Erdi Arotik hasita, Barrokoaren adibideak aztertzeraz ere iristen da. Iturri garrantzitsua dela esan behar da, Nafarroako musikarien irudigintzaren inguruko monografia bakarra izanik. Bestalde, ikonografiaren aldetik, Nafarroako Gobernuak Kultura Sailak argitaratutako *El Arte Románico en Navarra* bezalako argitalpena dugu, lurraldeko erromanikoaren liburu entziklopedikoa<sup>7</sup>. Bestetik, eta nahiko berria den *El Arte Gótico en Navarra* lanetan Nafarroako bi estilo horien adibide gehienak azaltzen dira, baina ikonografia azaltzerakoan “*en la cuarta arquivolta se representan músicos*” bezalako esaldiak soilik aurki daitezke, sakonki aztertzeraz iritsi gabe, beraz<sup>8</sup>. Bestalde, Eusko Ikaskuntzak 1990. hamarkadan argitaratutako *Iconografía Musical de Navarra* izeneko zenbait artikulua ere badaude, Nafarroako merindadeak erabiliz geografikoki bananduak, eta bertan ikonografiaren inguruko zenbait adibide ageri dira, esanguratsuenak badira ere<sup>9</sup>.

---

<sup>6</sup> FERNÁNDEZ-LADREDA, C., *Iconografía musical de la Catedral de Pamplona*, Iruñea, Iruñeko Katedraleko Musika-Kapera, 2004.

<sup>7</sup> FERNÁNDEZ-LADREDA, C. (zuz), *El Arte Románico en Navarra*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2002.

<sup>8</sup> FERNÁNDEZ-LADREDA, C. (zuz), *El Arte Gótico en Navarra*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2015, 206 orr.

<sup>9</sup> ALONSO Y GARCÍA DEL PULGAR, T. (zuz)., “Iconografía Musical de Navarra. Merindad de Estella”, *Cuadernos de Sección del Folklore*, 4, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1991, 125-166 orr.

Bestalde, laguntza asko ematen duen beste liburu bat *Historia de la música medieval en Navarra* lana da, Higinio Anglésena, 1970ean argitaratutakoa. Nahiz eta liburu orain nahiko zaharra suertatu, Nafarroako Erdi Aro ia osoko Errege-gorte ezberdinetan erabili izan diren musika-tresnen inguruan aritzen da, eta orduko musika-egoera ezagutzeko nahitaezko lana dela deritzot<sup>10</sup>. Honi lotuta, urte honetan bertan, 2017an, María Guembero-Ustárrozek Nafarroako Gobernuarekin batera argitaratutako *Navarra. Música* lana azpimarratzea zilegi da. Nafarroako historiografiak behar zuen honelako lan bat, bertako musikaren eboluzioa Historiaurretik ere gaur eguneraino zabaltzen den azalpen batean. Aipatzekoa da, bada, Iruñeko Katedraleko klaustroan ageri diren erliebe zenbaiten inguruan, irudiek daramatzaten musika-tresnen erreproduzioen argazkiak ageri direla liburuan, laguntza ezin hobea, beraz, lan honen azterketarako<sup>11</sup>. Aipatzearren, *La música medieval en Galicia* lanean, José López-Caloren 1982ko argitalpenean, Erdi Aroan Donejakue bidean jotzen omen ziren zenbait musika-tresnen inguruko datuak ere aipatzen ditu, interesgarriak izan daitezkeenak ere musikarien irudikapenak ulertzeko<sup>12</sup>.

XXI. mendera arte itxoin behar izan badugu Nafarroako eskulturan ageri diren musikarien inguruko lan zehatzak kaleratzeko, guztiz normala zaigu garaiko iturririk ez aurkitzea gai zehatz honen inguruan. Gaztelaren kasuan, hain famatuak diren Alfontso X.a erregearen Santa Mariaren Kantigetan musikarien irudi andana aurkitzen dugu, baina hauek dekorazio hutsa besterik ez dira, testuarekin lotura zuzenik ez dutenak eta, noski, jotzen ari diren tresnen inguruan daturik ematen ez dutela. Gurera etorrita, zaila zaigu era ikonografiko batez eskulturan agertzen diren tresnak identifikatzea, ez bada modu enpirikoan egiten.

Gauzak horrela, landako lana edo zuzenean egindako lana guztiz beharrezkoa da lantzen ari naizen lana osatzeko. Izan ere, lehen esan bezala, lan entziklopedikoetan soilik ageri diren ikonografiak azaltzen dira, musikarien irudietan “musikariak” soilik aipatuz, ez zein tresna edota zein modutan agertzen diren azalduz<sup>13</sup>. Hasteko, arte-komplexu nagusiak aztertu ostean, 50 musikarien irudi baino gehiago biltzen dituen *corpus* baten osatzea beharrezkoa zen eta, honen ondoren, hautaketa bat egin. Zuzenean modu bisualean identifikatzeko lanak Lizarran, Erriberrin eta Uxuen ageri diren zenbait

---

<sup>10</sup> ANGLÉS, H., *op. cit.*, 93 orr.

<sup>11</sup> GUEMBERO-USTÁRROZ, M., *Navarra. Música*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2017, 38-39 orr.

<sup>12</sup> LÓPEZ-CALO, J., *op. cit.*, 62-70 orr.

<sup>13</sup> FERNÁNDEZ-LADREDA, C. (zuz), *El Arte Gótico... op. cit.*, 309 orr.

musikariekin egitera bultzatu ninduen lan honek. Lizarran, kasu, San Migelen elizako ataurrean agertzen den musikarien arkiboltako irudiak aztertzea beharrezkoa da, egun gutxi kontserbatzen badira ere, informazio ugari ematen digute. Erriberriko Andramariaren errege-elizan, pasa den urtean polikromia berreskuratu zen ataurrean, gainera, zenbait musikari ageri dira, irudi nahiko handietan. Kontserbazioa ez da oso egokia, baina tresnak identifikatzea ez da zaila izan. Bestalde, Uxueko bi portadetan ageri diren zenbait irudiak ere aztertzea interesgarria da, egoera oso onean kontserbatu izan direlako.

Beraz, gauzak horrela, iturrien aldetik oraindik ere gai honen inguruan asko dago egiteke, zuzeneko azterketak guztiz beharrezkoak dira oraindik, monografia zehatzik ez baita idatzi, zenbait lanetan ageri diren datu batzuk edota *Iconografía musical de la Catedral de Pamplona* liburuxka bezalako lan xumeak salbuespen hartuta.

## **MUSIKA ERDI AROKO NAFARROAN**

Nafarroa Donejakue Bidearen oinarrietako bat izanik, Erdi Aroan zehar entzun ziren musika-tresna gehienak bidetik pasatzen ziren horienak izan ziren<sup>14</sup>. Lehen esan bezala, bestelako faktore esanguratsuena Nafarroako Erresumaren errege-etxeak frantziarrak izate hasi zirenekoa izan daiteke, bertatik ekarri zituztelako musikari andana, eta horiek zekartzaten musika-tresnak, beraz<sup>15</sup>. Ezinezkoa zaigu orain, lan honen ezaugarriekin, Nafarroan musikak izan zuen eragin eta garrantzi osoa azaldu<sup>16</sup>.

Erdi Aroa musikarik gabe ezinezkoa zaigu imajinatzea. Aurretik esan bezala, musika egunerokotasunean zegoen elementu bat zen, bai zuzenean ikusitako entzun eta ikustaldiekin (juglare edota errito erlijiosoetan) baita bistaz ikusten zutena ere (eskultura eta pinturan islatzen zen hori). Horrela, musikaren esparruak bitan bereizi ditzakegu, orokorrean: errito erlijiosoetako musika eta gorte eta kaleko musika, hots, meza eta bestelako festa erlijiosoetan gauzatzen zen musika hori, eta errege-gorteetan eta baita kaleetan zehar ibiltzen ziren juglare eta musikari horiena, hurrenez hurren.

---

<sup>14</sup> ANGLÉS, H., *op. cit.*, 132 orr.

<sup>15</sup> *Ibid.*, 89 orr.

<sup>16</sup> Horretarako Higinio Anglésen *Historia de la música medieval en Navarra* (1970) lan bikaina daukagu, garaiko dokumentuetan oinarritua, orduko errebaso zabal eta zehatza egiten duela. Gauzak horrela, gurera egokituz, musikak Erdi Aroan eta batez ere Nafarroan izan zuen garrantzi eta eraginari egingo diogu erreferentzia.



### ❖ Musika arlo erlijiosoan

Bai kristautasunean zein edozein erlijiotan ere, erritoak beti musikaz lagunduta azaltzen zaizkigu. Kristautasunaren hasieratik sortu ziren kantu eta himnoekin batera, ondoren (Erromanikoaren garaian batez ere, IX. mendetik aurrera), kantu gregoriarra izenarekin ezagutzen dena sortu zen<sup>17</sup>. Gainera, Eliza Katolikoaren zenbait sektorek musika bekatutzat hartzen zutenez, musika-tresnak ez ziren oso zilegi errito erlijiosoetan, batez ere eukaristia zuten horietan. Horrela, kantuz eta ahotsez sortutako musika zen nagusi, ez bazen eliza berri baten kontsagrazio-festan, baina beti beste esparru batzuei loturik, beraz (jai eta kale-ospakizunetan, bada). Hasieran monodikoak (melodia bakarrekoak) izan zitezkeen, ondoren jadanik polifonia (ahots ezberdinak) erabiltzen hasi zen<sup>18</sup>.

Gurean, bada, ez dugu sobera dokumentu aurkitzen hasierako Nafarroako musika-erlijiosoaren inguruan. Zenbait aipamen egiten dira XIII. mendearen aurretik, Iruñeko Katedral erromanikoaren (egun existitzen denaren aurrekoaren) kontsagrazioan kantariak parte hartu zutela aipatuz, esaterako<sup>19</sup>. Halaber, egun Nafarroan existitzen zen instituziorik zaharrena 1206ko irailaren 29an sortu zen, Iruñeko Katedraleko Musika-kapera, kantari zein musikariak biltzen dituen<sup>20</sup>. Halaber, hasierako musikarien inguruko idatzirik ez da aurkitu<sup>21</sup>.

### ❖ Musika arlo zibilean

Musikak protagonismoa zuen beste esparru nagusia esparru zibila, errege-gortea izan zen, kaleko musikari eta juglareei oso loturik. Nafarroaren kasuan, azpimarratzekoa da Teobaldo I.a eta frantziar errege-etxeen etortzearekin gertatu zen musika-iraultza. 1234ko apirilean Antso Azkarra erregea zendu zen, eta hilabete pasata errege berria zegoen jada Iruñean<sup>22</sup>. Champagneko errege-etxearen hasierarekin, aldaketak etorri ziren egoera kulturalari dagokionez. Frantziar errege-gorteko musika oso garatua zela, Teobaldo I.a erregea bera musikaria izan zen, eta ekarpen handiak egin zituen Nafarroako musikaren inguruan, bai melodia zein musika-sorkuntzaren harira. Bestetik

---

<sup>17</sup> PEDRELL, F., *Diccionario técnico de la música*, Valladolid, Maxtor, 2009, 18 orr.

<sup>18</sup> ANGLÉS, H., *op. cit.*, 106 orr.

<sup>19</sup> "Primeras manifestaciones musicales en la Catedral", <http://www.capillademusicapamplona.com/historia/origenes/primeras-manifestaciones-musicales-en-la-catedral/> (2017ko maiatzaren 5ean kontsultatua).

<sup>20</sup> ANGLÉS, H., *op. cit.*, 106 orr.

<sup>21</sup> GUEMBERO-USTÁRROZ, *op. cit.*, 28 orr.

<sup>22</sup> ANGLÉS, H., *op. cit.*, 94 orr.

ere, aipatzekoa da pixkanaka errege-gortean musika-kaperak sortzen hasi zirela, kasu Teobaldo II.aren garaian, 1274an, Santa Isabelen kapilautza sortzen duteneko<sup>23</sup>. Baina, musikarien jatorriaren inguruan gehien dokumentatzen den garaian, Karlos II.a erregearekin, XIV. mendearen hasieran, erregeak ez zuen musika-kaperarik sortu<sup>24</sup>. Halaber, dokumentatuak ageri dira musikari alemaniarrek eta frantziarrak ekarri zituela, bai bere ezteiak zein beste festa erlijiosoetan parte hartzeko (*trompes, trompetes, tambor* edota *viula* tresnak jotzen zituztela)<sup>25</sup>.

Halaber, gorakada kultural eta soziala Karlos III.a Noblearen garaian izan zen, XV. mendean, alegia. Errege honek arlo kultural eta artistikoan ekarpen ugari egin zituen, bai plastikagintzari dagokionez, baita musikari dagokionez ere. Dokumentatuak dira bere garaian jo izan ziren musika-tresnak, hauek lirakeelarik: arkuzko *vihuela*, *cinfonia* (zarrabetea edo zanfona), zedra, fidula, rabela, salterioa, kornamusa, tronpa eta tronpetak, txirimia edo dultzainak, baita perkusiozko tresna ugari ere<sup>26</sup>. Bestetik, organoaren kasua aipatzekoa da, erregearen musika-kaperan presente zegoena baina baita ere organo mugikorrek sortzea agindu zuela, bidaietara eramateko<sup>27</sup>.

Bestetik, kaleko musikari dagokionez, bertan ikus zitezkeen juglare eta musikariek orain aipatutako tresnak eraman zituzketen ere. Bestalde, *Codex Calixtinusean* bertan aipatzen dira bidean zehar Konpostelara iristen ziren zenbait tresna ere: zitara, lira, arpak, tronpa britainiarrek, salterioak<sup>28</sup>... Ez da harritzekoa, beraz, Nafarroara iristen ziren musika-tresna ugari ere kanpotik ekarriak izan zirela, bai errege-gorteetan suertatzen ziren mugimenduei esker, zein erromesek beren sorterrietatik ekarritakoak ere.

Gauzak horrela, jarraian aztertuko ditugun zizelkaturiko irudietan aipatuko diren musika-tresnak arestian esandakoak izango dira, gehien bat. Horrela, errealitatea eta plastikagintzaren arteko lotura zuzenaren emaitza moduan kontsidera daitekeena. Izan ere, lehen azaldutako ikonografia-askatasun horren baitan, musikariek zeramatzaten tresnak irudikatzerako orduan artegileak modu enpirikoan ikasitakoa eta bere imajinazioa ere erabil zezakeen musikaria irudikatzerako orduan. Aipatzekoa da,

---

<sup>23</sup> *Ibid.*, 102 orr.

<sup>24</sup> *Ibid.*, 198 orr.

<sup>25</sup> *Ibid.*, 208 orr.

<sup>26</sup> *Ibid.*, 345-346 orr.

<sup>27</sup> *Ibid.*, 268 orr.

<sup>28</sup> *Ibid.*, 133 orr.

ondoren ikusiko dugunez, Iruñeko Katedraleko klaustroan ageri diren aingeru-musikariak, musika-tresnen aberastasunaren eredurik bikainena izanik.

## **MUSIKARIEN IRUDIEN ANALISIA**

Irudien azterketarako, ikonografiaren ezberdintasunen aldetik ezarriko gara. Gauzak honela, hasieran esan bezala, musikarien irudiak ikonografiaren aldetik zegoen askatasun txiki horri esker aurki ditzakegu bere orokortasunean, baina badira zenbait toki non Eliza Kristauak musikarien presentzia baimendu eta baita behar zuela ere. Musikarien irudi guztiak lan honetan azaltzea ezinezkoa denez, esanguratsuenak eta nabarmenenak aztertuko ditugu, bai bere antzintasunarengatik, zein bere kontserbazio egoera onarengatik ere, esaterako. Bestetik, logikoa denez, irudiok egungo Nafarroa Garaia erdialde eta hegoaldean aurkituko ditugu batez ere, nahiz eta iparralderago eraikin erromaniko eta gotikoak existitu baziren ere, irudigintza oparoena lurraldearen erdialde eta hegoaldean aurkituko dugu, bada.

Bi ikonografia nagusitan agertzen diren irudikapenei egingo diegu erreferentzia, baita ordena kronologiko batean, hasieran, azalduak ere. Hasteko, Bibliako Apokalipsiaren pasartearen irudikatzeetan agertzen diren irudiak ikusiko ditugu, adibiderik garbiena Lizarrako San Migel eliza erromanikoaren aturrean agertzen den Apokalipsiaren agurren irudiekin<sup>29</sup>. Bestetik, Epifaniaren ikonografia sortzerakoan bi adibide nagusi aztertuko ditugu, alde batetik Erriberriko Andramariaren errege-elizako ataurrea, eta Iruñeko Katedraleko klaustroan ageri den Epifaniaren irudia, biak gotikoak, kasu honetan. Azkenik, beste zenbait adibide solte baina esanguratsuak ere azalduko dira, irudi garrantzitsuak ere musikarien irudikapenaren historiografiarako.

### **❖ Musikariak Apokalipsian**

Elizaren Aitek sortutako azken Bibliaren bertsioan, Itun Berriko azken liburua Apokalipsiaren inguruko pasarteak azaltzen ditu. Antza San Joanek jaso zuen munduaren amaieran gertatuko direnen berri, eta testuan plazaratu zituen. Horrela, Azken Epaiketa eta Jesukristoren bigarren etorrera horretan, musikari batzuei egiten

---

<sup>29</sup> Elizaren eraikuntza asko luzatu zen mendeetan zehar, eta eraikinaren gehiengoa *opus francigenum* edo Gotikoan eraiki zen. Halaber, burualdea eta, kasu, aztertuko dugun ataurrea erromanikoak dira.

zaie erreferentzia, batean zuzenean eta bestean zeharka, pertsonai beren inguruan ari dela. Honela azaltzen da Apokalipsian:

“Liburua hartu zuenean, lau izakiak eta hogeita lau zaharrak Bildotsaren aurrean ahuspeztu ziren. Zitara bana zuten eta intsentsuz beteriko urrezko ontziak, Jainkoarenak direnen otoitzen adierazgarri”<sup>30</sup>.

Jada, 24 agure musikarien erreferentzia zuzena da pasarte honetan, eta hain zuzen irudi hori ataurre erromaniko gehienetan irudikatuko da, tinpanoaren inguruan zenbait agure edo gizon heldu musika-tresnak jotzen. Zitara eta ontziak izan beharrean, ikonografiaren aldetik eskuzabal izanik, eskultoreen imajinazioa eta zuzenean ikusi izan zituzkeen musikariek zeramatzatzen tresnak ezartzen zituzten. Gurera etorrita, esan bezala, Nafarroa Donejakue Bidearen atal garrantzitsua izanik, Europa erdialde eta iparraldetik zetozenen tresna ugari ikus zitzaketen, batez ere sokazko instrumentuak, haizezkoak eta, hein txikiago batean, perkusiozkoak, ohikoagoak bazirelako leku guztietan<sup>31</sup>.

### *Lizarrako San Migel eliza*

Adibiderik esanguratsuen Nafarroan Lizarrako Alde Zaharrean aurkitzen den San Migel elizako ataurrean aurki dezakegu. Denbora luzean luzatu ziren eraikin honen eraikuntza-lanak, estilo batean hasi eta beste batean amaitu zirenez. 1174an lehen aldiz aipatua da dokumentu batean, bere kontsagrazioaren inguruko idatzietan. Bestetik, 1236an Teobaldo I.a erregeak eliza aurreko enparantzan merkatua antolatzea baimena ematen duenean ere, eliza eraikia zegoela adieraziz, beraz<sup>32</sup>. Horrela, nahiz eta elizan zutitu ziren pilareen arteko ezberdintasunak nabarmenak izan, berezko proiektu originalaren itxura mantendu zen, baita burualde eta elizaren gorputzaren arteko ezberdintasun nabariena aipatuz: burualdea erromanikoa (erdi-puntuko arkuz osatutako absideak, labe-gangak eta ertz-gangak), gainerakoa gotikoa izanik (gurutze-gangak, lobulatuak, etab.).

Bestalde, ataurreari dagokionez, eskultura erromaniko baten aurrean aurkitzen gara. Zenbait autorek nabaritu duten arren, ataurrea leku berean eraikitzeko planteatu zen, baita ikonografiaren aldetik ere eskema eta konposizio bera izateko ere. Halaber,

---

<sup>30</sup> Apokalipsia 5, 8.

<sup>31</sup> LÓPEZ-CALO, J., *op.cit.*, 56 orr.

<sup>32</sup> FERNÁNDEZ-LADREDA, C. (zuz), *El Arte Románico... op. cit.*, 237-238 orr.

eraikuntzaren prozesu luzearengatik-edo, noizbait desmuntatua eta berreraikia izan zen, zenbait eszenen kokapen ilogikoak adierazten digunez<sup>33</sup>.



2. **IRUDIA.** Lizarrako San Migel elizako ataurrea. Ikuspegi orokorra.

Konposizioa aztertuz (ikus. 2. irudia), San Joanen Apokalipsiaren ikustea dago irudikatua. Tinpanoan, erdialdean, *Maiestas Domini*-a ageri da, mandorla lobulatuan, *tetramorfos*-a bere inguruan duela eta bi alboetara Amabirjina eta San Joan dituelarik. Bere inguruan, ate-zangoetatik hasi eta erdialdean elkartzen direla, irudikapen ugari agertzen dira, bai aingeruak, zein bekatuen errepresentazioak, etab. Bestetik, aturrearen alboetara apostoluak eta San Migelen inguruko beste pasarte batzuk irudikatu ziren. Kristoren irudia inguratzen duen arkibolta batean, barrualdetik hasita bigarreanean bertan, aingeru turiferarioen ostean, Biblian aipatzen diren agure musikari horiek aurkitzen ditugu. Aipatzekoa da, gainera, ez direla 24ak irudikatzen, 20 baizik (agian espazio edota denbora faltarengatik eginak)<sup>34</sup>. Halaber, musikarien irudi hauen kontserbazioa ez da oso ona, eta benetan aztertzeak direnak soilik lehen eta bigarrenak dira, eskuin eta ezkeraldekoak, lau irudi, beraz. Gainerakoetan zaila da zein musika-tresna jotzen ari diren ondorioztatzea, eta geroz eta gorago joan, irudiak are deseginak daude euri eta kanpoaldeko eraginen ondorioz. Agure guztiak berdin

---

<sup>33</sup> *Ibid.*, 239 orr.

<sup>34</sup> *Ibid.*, 333 orr.

irudikatuak daude, eseriak, bizar eta ile luzea dutela, Erdi Aroko koroa<sup>35</sup> eta tolesturak dituzten tunika luzean jantzita, espazio murrizarengatik oso modu gertuan daudela<sup>36</sup>.

Gure eskuinaldetik hasita, bigarren arkibolta honetan aurkitzen dugun lehen irudian, bi agure sokazko instrumentu bana jotzen ari dira<sup>37</sup>. **Arkuzko biola**-jotzaile pare bat da. Kontserbazio egoera ia bikainean iritsi zaigu irudia, eta tresna identifikatzerako orduan modu oso errazean ikus ditzakegu errepresentazioaren bikaintasuna eta era tekniko batez egin zen lanketa bikaina<sup>38</sup>. *Fidula* edo *rabel* izenarekin ere ezagutzen dira, hauek hitz frantziarretatik eratorriak, sinonimo gisa erabil daitezkeenak<sup>39</sup>. Juglareek XII. mendetik XV. mendera arte erabili izan zuten, bibolin antzeko baten tresna da, sokazko arku baten irristatzearekin tresnak dituen sokak joz, erresonantzia-kutxan sortutako uhinak barneratuz soinua sortzen duela. Tresna sorbaldan edo izterrean utzita, arkuia alde batera eta bestera mugituz jotzen da. Kasu honetan, bi agureek sorbaldan dute ezarria arkuzko biola, eta jotzen ariko bailiran agertzen dira, *Maiestas Domini*-aren agerpenari musika ezarriz.

Adibide bitxiagoa aurkitzen dugu hurrengo eszenan, justu arkuzko biolaren gainean dagoena, Erdi Aroan oso ezaguna eta herrikoia bilakatu zen musika-tresna batekin. Agure bikote hau **organistrum** tresna jotzen ageri da (ikus. 3. irudia). Biradera bidezko kordofonoa<sup>40</sup>, kutxa baten babesean hariak gurpil batek irristatuz soinua sortzen dela, klabe edo egurrezko “iltze” batzuek zanpatuz soinu baxu eta altuagoak sortzen dituen. Egun zarrabete edo *zanfona* izenarekin ezagutzen den tresnaren aitzindaria, IX. mendean jada



3. **IRUDIA.** Lizarrako San Migel elizako ataurrea. Organistruma.

<sup>35</sup> Koro baxua, gurutzerik eta estalirik gabe, ondoren Aro Modernoan sortuko diren koroekin antzik ez dutela.

<sup>36</sup> Aipatzekoa da, *El Arte Románico en Navarra* liburuan soilik honakoa diola musikarien inguruan: “*En la segunda vemos a los Ancianos del Apocalipsis, dispuestos por parejas y tocando instrumentos*”. Ez ditu, beraz, musika-tresnak banan-banan aztertzen.

<sup>37</sup> Egokiagoa euskara batuan “musika-tresna” hitza litzateke, baina sinonimo gisa erabiliko da, behin eta berriko errepikapenak saihesteko.

<sup>38</sup> ALONSO Y GARCÍA DEL PULGAR, T. (zuz.), “Iconografía Musical de Navarra. Merindad de Estella”, *Cuadernos de Sección del Folklore*, 4, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1991, 148 orr.

<sup>39</sup> PEDRELL, F., *op. cit.* 493 orr.

<sup>40</sup> *Kordonofa*: sokazko edo harizko musika-tresna.

dokumentatzen dena, oso ezaguna bilakatu zen Erdi Aroan batez ere bere erabilgarritasunarengatik, bi juglarek jotzearekin batera kanta zezaketen, istorioak edota poesiak kantatuz *organistruma* jotzen zuten bitartean<sup>41</sup>. Irudi hau Nafarroan kontserbatzen den Erdi Aroko garaikidea den *organistrum* baten irudirik bikainena dela esan daiteke, bere kontserbazio egoera bikaina baita, nahiz eta berezko tresnaren zenbait atal agertzen ez diren, seguru aski espazioari moldatutako irudia izateagatik<sup>42</sup>. Benetako maisulana, kutxaren alboetan agertzen diren dekorazioak eta guzti antzeman ditzakegula, erdi-puntuko arkupe baten irudikapena. Bere garaian izan zuen polikromiak are aberatsago egingo zukeen irudi hau, batez ere *organistrum*aren dekorazioari dagokienez. 2006. urtean, Antonio Poves luthierrak *organistrum* honen berreraikuntza egin zuen, eskultura hain zehatza izanik, eta usteko pintura-dekorazioak gehitu zizkion ere. Antzerakoa egin dute Konpostelako Loriaren Aturreko musika-tresnekin, edota pasa den 2016. urtean Toron (Zamora) dagoen aturre bateko musikariek daramatzatenekin ere<sup>43</sup>.

Hurrengo eszenetako musikariak identifikatzea ezinezkoa da, harriaren desegitearekin irudiak oso kaltetuak izan direlako.

Eskema jarraituz, arkibolta berean baina gure ezker aldean, bigarren irudian beste *organistrum* bat aurkitzen dugu. Kasu honetan, kontserbazioa okerragoa da, baina argi agertzen dira atal nagusienak: biradera, kutxa lobulatua eta egurrezko “iltzeak”.

Bere azpialdean, azken agure bikotea ageri da, batek **arpa** eta besteak **zedra** edo gitarraren aitzindari antzeko bat jotzen ageri dira<sup>44</sup>. Ikonografia ezagutzea zailagoa da honetan, justu tresnak irudikatuak izan ziren parte nahiko galduta dagoelako, eta ez dira ageri besteetan adina zehaztasun. Arparen kasuan, eskuz zuzenean jotzen ari den tresna dela agerikoa da, ez baitu arku edota bestelako elementurik eskuan, eta beste eskuaz baliatzen da tresna bera sostengatzeko. Bere ondoan, aldiz, zedra edo gitarra baten aitzindari izan daitekeen tresna bat ageri da, oso desegina dagoena, baina bere jarreragatik antzeman daiteke esku batez arkuan eta tresnan beran sostengatzen diren

---

<sup>41</sup> TRANCHEFORT, F.-R., *Los instrumentos musicales en el mundo*, Madril, Alianza, 1985, 157 orr.

<sup>42</sup> ALONSO Y GARCÍA DEL PULGAR, T. (zuz.), *op. cit.*, 145 orr.

<sup>43</sup> Konpostelako irudien inguruan argitalpen honetan aurki dezakegu informazio andana: VILLANUEVA, C. (zuz.), *El Pórtico de la Gloria: música, arte y pensamiento*, Konpostelako Donejakue, Konpostelako Donejakueko Unibertsitatea, 1988. Bestetik, Toroko obraren inguruan honako honetan: “*De la piedra a la madera o cómo dar vida a los instrumentos medievales*”, <http://www.musicaantigua.com/de-la-piedra-a-la-madera-o-como-dar-vida-a-los-instrumentos-medievales/> (2017ko apirilaren 19an kontsultatua).

<sup>44</sup> ALONSO Y GARCÍA DEL PULGAR, T. (zuz.), *op. cit.*, 145 orr.

soka horiek jotzen dituela, beste eskuarekin soka horiek berak estaltzen dituela akordeak sortzeko<sup>45</sup>.

Esan bezala, Lizarrako San Migel elizako aturrearen kasuan musika-tresna ezberdin eta ugari agertzen zaizkigu, eta kalitatezko irudiak ere. Nahiz eta irudi erlijiosoak izan, Elizak markaturiko ikonografia zehatzak landuz, egunerokotasunean ikus zituzketen tresnak irudikatzeak aukera bazuten, aitzakia moduan Apokalipsiaren agure horiek sortzerako orduan. Denboraren poderioz galdu diren musikariak kontserbatu izan balira, aberastasuna are ugariagoa zatekeen, *organistrum*aren irudiaren antzerako benetako kalitatezko irudiak izanik, hauen erreproduzio edo berregiteak egitea erraza izango zen, Konpostelan egin duten antzera.

### ❖ Musikariak Jesusen gurtzan (Epifania)

Jarraian aztertuko dugun beste ikonografia edo musikariak irudikatzeak gaia Jesusen jaiotzaren ondoren egindako gurtzean izango da, hain zuzen Ekialdetik etorri omen ziren Errege Mago horien gurtzean, baita eszena horren inguruan omen zeuden artzainena ere, hots, Epifaniaren irudikatzeetan. Iturrietara joanez, Biblian, Itun Berriko Mateoren idatzietan honelaxe dio:

“Jesus jaio ondoren, sortaldeko jakintsu batzuk azaldu ziren Jerusalem<sup>46</sup>”.

Besterik gabe, esaldi horrekin eta beste idatzi apokrifoen bidez sortu zen Errege Magoen gurtzearen irudia, Epifania izenarekin ere ezagutzen dena<sup>47</sup>. Gauzak horrela, artzainen inguruko bisitan honela mintzatzen da Lukas ebanjelaria:

“Joan ziren lasterka eta han aurkitu zituzten Maria, Jose eta jaioberria askan etzana. Ikusi zutenean, haurtxo hartaz esan zitzaizena kontatu zuten. Artzainek esandakoa entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren. Mariak, berriz, gertakari guztiok gogoan hartzen zituen, bere barruan hausnartuz. Artzainak, entzun eta ikusi zutenarengatik Jainkoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, dena aingeruak esan bezala gertatu baitzitzaizen<sup>48</sup>”.

Bi pasarte hauek, iturrietan zuzenean oinarrituz, ez digute nola irudikatzeak informazio gehiegirik ematen. Beraz, irudigileek eskumen handia izan zezaketen hauek

---

<sup>45</sup> *Ibid.* 145 orr.

<sup>46</sup> Mateo 2, 1.

<sup>47</sup> Honako testu apokrifoeetan ageri da ere Epifaniaren erreferentzia: Santiagoren Protoebanjelioa XXI, 1-2; Pseudo-Mateoren Ebanjelioa XVI, 1-2.

<sup>48</sup> Lukas 1, 16-20.



irudikatzeetan. Zenbait adibide proposatuko ditugu, azaldutako pertsonaia hauen inguruan musikariak ezartzeko aukera izan baitzuten, bai eszenako partaide bezala, zein irudia goraiatzeko lagungarri gisa. Kasu honetan, jarraian azalduko diren bi egoitzak estilo gotikoan sortu ziren, lehen irudi erromanikoak ikusi baditugu, orain hurrengo garaiko adibide batzuk aztertuko ditugu.

#### *Erriberriko Andramariaren errege-eliza*



4. IRUDIA. Erriberriko Andramariaren errege-elizako ataurrea. Ikuspegi orokorra.

Erriberri, Nafarroako izen bereko merindadeko hiriburu, errege-egoitza izan zen denbora luzean zehar. XIV. mendearen aurretik, bertan errege-gaztelu bat existitzen zen, gotorleku moduan erabiltzen zena, hasierako Gotikoan eraikia. Honen parean, estilo Gotiko betearen hasieran eraiki zen Andramariaren eliza, Nafarroan jada hamarkadak zeramatzan errege-etxe frantziarraren eraginez<sup>49</sup>. Halaber, Karlos III.a erregeak gazteluaren inguruan eraikuntza erraldoiak agindu zituen, Errege-jauregia sortuz, gorteko eraikin moduan, modu erresidentzial batean ikusita. Obra hauek asko luzatu ziren, bere agintaldi osoan zehar, alegia, 1390 ingurutik 1420 hamarkadara arte<sup>50</sup>. Gauzak horrela, Nafarroako Gorteen egoitza izan zen ere urte askotan zehar, egoitza oso garrantzitsua, beraz, lurraldeko administraziorako. Bertan dagoen Andramariaren eliza errege-eliza moduan ulertu behar dugu, izan ere, jauregi berriaren eraikuntzarekin pasabide bat sortu zen jauregitik zuzenean elizaren korura iristeko, errege-balkoi

<sup>49</sup> FERNÁNDEZ-LADREDA, C. (zuz), *El Arte Gótico... op. cit.*, 458-459 orr.

<sup>50</sup> *Ibid.*, 464 orr.

moduan, Historia osoan zehar gauzatu diren adibide ugari horien antzera<sup>51</sup>. Izan ere, errege-dedikaziozko eliza izateaz gain, Erriberri herriko parrokia ere bazen (ondoren beste eliza bat eraiki zen, San Petrirena), eguneroko jardueretan errege-erreginen presentzia nabaria zen, bada, herriko bizitzan<sup>52</sup>.

Elizaren aturreari dagokionez (ikus. 4. irudia), aztertu dugun aurrekoa Erromanikoa izanik, orduko izpiritualtasunera lotutako gai batekin (Apokalipsia eta munduaren amaiera, alegia), orain beste gai batzuk agertuko zaizkigu, bizitzaren amaiera alde batera utziz eta Jesusen bizitza goraiatzeko dituzten irudiak txertatuz. Kasu honetan, aturre handi eta dekoratu gotikoa aztertuko dugu, ikonografia-konposizio konplexua duena. Jesusen bizitzaren zenbait pasarte ageri dira, Amabirjinaren papera ere azpimarratuz. Tinpanoan hasita, azpiko frisoan Deikundea ageri da, jarraian Jesusen Jaiotza eta ondoren elizaren titularra, Amabirjina haurrarekin (tronuan oraindik, Nafarroako Gotikoaren lehen adibideetako izanik), eta ikonografiak eskuinaldera jarraitzen du Errugabeen Sarraskia eta Egiptorako Ihesaren irudiekin. Eszenek goialdeko frisoak dute bere jarraipena, Tenpluan Aurkezpena eta, kronologian salto handi bat emanez, Jesusen Bataioa agertuz. Arkiboltetan dekorazio begetala ageri da, eta beste zenbait erregeen irudiekin betetzen da. Halaber, pasarte osoak ate-zangoen kapitelen gaineko irudiekin osatzen dira. Jesusen haurtzaroaren irudiekin batera, tinpanoaren lehen frisoan agertzen denez, Jesusen Jaiotzaren ostean gurtzearen irudia etorriko litzateke, Epifaniarena. Ikonografia hau elizaren titularraren irudiarekin eta aipatutako alboetako irudiekin osatzen da, konplexutasuna handituz eta aturreari aberastasuna emanez. Portadaren ezker aldean, barrualdeko arkiboltatik hasita, hiru Errege Magoak agertzen dira, doseleteaz babesturik, erdigunean ageri den Amabirjina eta haurraren irudi handiari gurtza emanez. Hauen ondoan, argi identifikatu ez diren irudi pare bat ageri dira, eta azken hauen atzean haizezko musika-tresna bat jotzen ageri den aingerutxo bat<sup>53</sup>. Konposizioa era bat osatzen da eskuinaldean, era berean ezarriak ageri diren artzain-musikariekin. Bost irudi ageri dira, batzuek kontserbazio okerrarengatik tresna eta baita zenbait gorputz-atal ere galdu dituztela, baina guztiak jotzen ageri dira. Konposizioa ixteko, beste aingerutxo musikari bat dago, simetria emanez.

---

<sup>51</sup> Carlomagnoaren Aaschengo (Akisgran) Kaperatik hasita, baita lehenagotik ere, ia egungo eraikuntzetara arte.

<sup>52</sup> *Ibid.*, 251 orr.

<sup>53</sup> *Ibid.*, 309 orr.



5. IRUDIA. Erriberriko Andrmariaren errege-elizako ataurrea. Artzain-musikariak.

Barrualdeko lehen arkiboltan (musikarien irudiei dagokienez), lehen artzainak **kornamusa** jotzen du (ikus 5. irudia)<sup>54</sup>. Izen ugariko tresna: gaita, kornamusa, zahagi edo zatuzko gaita, etab., tresna garaikideak egun ezagunak diren Galizia edota Eskoziako gaiten antzerakoa lirateke<sup>55</sup>. Larruzko zahagi batera (zatua) ahotik zuzeneko airea sartzen da, eta bi pieza irteten dira poltsa honetatik: klarina (melodia sortzen duen pieza, dultzainaren antzeko bat) eta pordoia/k (soinu jarraia sortzen duen zulorik gabeko klarin luzeagoa)<sup>56</sup>. Kasu honetan, kontserbazio egoerarengatik zatua soilik kontserbatu da, baina besoen posizioarengatik oso agerikoa da eskuekin klarin luze bat jotzen ari zela. Lehen ikusi dugun bezala, musika-tresna honek bere loraldia lortu zuen XIII. eta XIV. mendeetan, Donejakue Bideari esker eta baita orduan ere agintean zegoen frantziar errege-etxearen eraginez. Orduetik XVII. mendera arte Nafarroan oso erabilia izan zen musika tresna dugu, Erdi Aroko juglare eta gorte-musikan ere guztiz ezinbestekoa<sup>57</sup>.

Honen eskuinaldean **arkuzko biola**-jotzaile bat ageri da. Lizarrako kasuan ikusi dugun bezala, ohiko tresna zela ondorioztatu daiteke, ugaritan irudikatzen delako eta ondorengo eredu zenbaitetan ere ikusiko dugulako. Tresnaren gorputza soilik kontserbatu da, arkuaren zati bat, sokak irristatzen ari dela, baina besterik ez, besoa ere galdua dago.

<sup>54</sup>Tinpanoaren inguruan beste hiru arkibolta daude, bi aingerutxo ageri direla eta hirugarrena dekoraziorik gabekoa dena.

<sup>55</sup> Nafarroan, tradizionalki, zatuzko gaitari “kornamusa” deitu izan zaio, nafar dultzaina “gaita” izenarekin ezagutzen baitelako: URBELTZ NAVARRO, J. A. , “Notas sobre el xirolarro en el País Vasco”, *Cuadernos de Sección del Folklore*, 1, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1983, 175-215 orr.

<sup>56</sup> Bakarra edo batzuk izan ditzake. Zenbait kasutan klarinarekin batera ageri da, leku berean.

<sup>57</sup> ANGLÉS, H., *op. cit*, 347 orr.

Ondotik, **panderoa** edo perkusiozko tresna handi bat jotzen ageri den artzaina dago. Perkusiozko tresnak Historiaurretik erabili badira ere, Erdi Aroan eta batez ere musulmanen ondorengo garaietan asko erabiltzen hasi ziren Iberiar Penintsulako musikan<sup>58</sup>. Gurean, lehenetariko aldia da panderoa jotzen ageri den erliebe bat ikusten dela, nahiz eta aurreko adibide txikiak existitzen diren. Pertsonaiaren jantziak nahiko ongi iritsi zaizkigu, ez, ordea, gainerako detaileak. Beso batez panderoa eusten duela, bestearekin jotzen ari zen. Ezinezkoa dugu jakitea eskuarekin zuzenean jotzen ari den ala makil baten laguntzaz egiten zuen, beso osoa galdua baitago. Azkenik, hurrenkeran beste bi pertsonaia ageri dira, historiografiak ere musikaritzat hartu dituenak, baina egoera are okerragoan kontserbatu direnez, tresnaren zati bakar bat ere kontserbatu ez dutenak.

Beraz, azkenaldian jaso duen berriztatze-lanekin polikromiaren arrasto zenbait berreskuratu diren arren, Lizarrako San Migel elizako ataurrean gertatu izan zen bezala, tresneria dekoratua egongo zela adierazi behar da, seguru aski zehaztasun eta detaileekin dekoratua, bai kontserbatu diren zein kontserbatu ez diren tresnetan<sup>59</sup>.

### ***Iruñeko Katedraleko Jacques Peruten Epifania***

Iruñeko Katedrala Euskal Herriko konplexu-erijiosorik aberatsena dugu, garai ugaritako arrasto eta eraikuntzak aurkitzen baitira, era gehien batean egun arte iritsi zaizkigunak. Gaur egun ikus dezakegun katedral gotikoaren eraikuntzaren lanak asko luzatu ziren mendeetan zehar, luzapen horren adibiderik argiena klaustroa izanik<sup>60</sup>. Bertan, kronologia ezberdinetako obrak ikus ditzakegu, bai klaustroa beraren eraikuntzan zein hau hornitzeko sortu ziren ataurre eta dekorazioetan. Klaustroaren ipar-ekialdeko tartean, horman bertan, Jacques Perut eskultoreak XIV. mendean sortutako Epifaniaren irudia dago ezarria. Klaustroaren eraikuntzaren hasierako fasean egin, ustez aurreko klaustro erromanikoan bertan ere Epifaniaren irudi bat kokatua zegoen toki berean<sup>61</sup>.

---


<sup>58</sup> PEDRELL, F., *op. cit.*, 23 orr.

<sup>59</sup> “Presentada la portada de Santa María de Olite tras su restauración”, <http://www.noticiasdenavarra.com/2017/03/04/vecinos/presentada-la-portada-de-santa-maria-de-olite-tras-su-restauracionsanta-maria-de-olite-se> (2017ko apirilaren 19an kontsultatua).

<sup>60</sup> Fatxada ezik, XVIII. mendean eraikia izan zena, gainerakoa XIV eta XVI. mendeen artean eraikia izan zen: FERNÁNDEZ-LADREDA, C. (zuz), *El Arte Gótico... op. cit.*, 157-231 orr.

<sup>61</sup> FERNÁNDEZ-LADREDA, C. (zuz), *El Arte Gótico... op. cit.*, 205 orr.

Konposizioari dagokionez, hormaren erdialdean basa baten gainean hiru Errege Magoak ageri dira, mukulu-biribileko eskulturetan eginak, gure eskuinaldean Amabirjina eta haurra ageri direla, gurtzea jasotzen, errezela baten babesean. Irudi errealistak, Gotikoan egindakoak, oso ongi kontserbatu direnak. Honetaz gain, horma ixten duen arku zorrotzaren arkiboltan, 12 aingerutxo daude irudikatuak, eszenaren jainkotasuna iradokitzeke, testuinguru bat osatuz<sup>62</sup>. Aingeruak berdin irudikatuak dira guztiak, doselete baten azpian, tunika luzez eta arkuaren erdialderantz zutik ezarriak. Hauetatik bi aingeru turiferarioak (intsentsu-eramaileak) dira, azkeneko postuan ezarriak, eta gainerako guzti-guztiak musikariak, tresna ezberdinak daramatzatela. Kasu honetan, esan bezala, eszenaren laguntzaile gisa ageri dira musikariak eta, nahiz eta ikonografia beraren partaide zuzenak ez izan, irudiaren osatzean paper garrantzitsu bat betetzen dute. Maisutasunez landuak izanda eta egoera oso egokian kontserbatu izan direnez, tresneriaren identifikazio oso erraza izan da, eta publikazioetan ere, honetan behintzat, musika-tresnak identifikatuak izan dira eta hauen inguruko informazioa aski da<sup>63</sup>. Harizko eta haizezko tresnak daramatzate, musikaren aldetik konposizio oso aberatsa sortuz.



6. IRUDIA. Iruñeko Katedraleko Jacques Peruten Epifania. Aingeru-musikarien irudiekin egindako muntaketa (bat ez dator berezko konposizioarekin).

Arkiboltaren ezkerraldetik hasita, lehen aingeruak **biola obalatua** jotzen du<sup>64</sup>. Aurretik ikusitako beste irristatze bidezko kordofonoen antzerakoa, arkuzko biolaren eboluzio bat izan daiteke. XV. mendetik aurrera biola izena ezarri zitzaion, jatorri frantziarreko hitzetik (*viella*)<sup>65</sup>.

<sup>62</sup> *Ibid.*, 207 orr.

<sup>63</sup> Tresneriaren identifikazioa Clara Fernández-Ladredak gauzatu zuen, *Iconografía musical de la Catedral de Pamplona* (2004) lanean.

<sup>64</sup> FERNÁNDEZ-LADREDA, C., *Iconografía...* *op. cit.*, 14 orr.

<sup>65</sup> *Ibid.*, 14 orr.

Hurrengoak **salterio gotikoa** jotzen du. Arparen antzerakoa, baina hariak erresonantzia-kutxaren gainean ezarriak daude. Kasu honetan, interesgarria da soka horiek luma baten bidez kolpatzen dituela aingeruak soinua sortzeko, orduko musika-jotzeko eraren isla garbi eta zuzena<sup>66</sup>.

Hirugarrenak eskuz eramane daitekeen **organo eramangarria** jotzen du. Organoaren berezko eredu txikiagoa, arestian esan bezala, ohikoak ziren horrelako musika-tresna txikiak, zeremonietara eramateko ala bestelako ospakizunetan jotzeko. Aipatzekoa da, irudikatze honetan, aingerua kantari dagoela dirudiela eta, beraz, organo txikia izanik, errealitatean horrela gertatzen zela ere pentsa daiteke<sup>67</sup>. Tutu luze urri batzuek osatuta, atzealdeko hauspoari emanez haizea sartzen zen, eta soinua sortu. Besoen gainean eramane, organoa berez eusten zen besoarekin ematen zitzaion hauspoari, akordeoiaren mugimendu antzeko bat sortuaraziz.

Laugarrenez, gitarra-**lautea** ageri da<sup>68</sup>. Gitarraren antzeko musika-tresna, Erdi Aroan ere fama handia lortu zuena, batez ere juglare eta kaleko kantarien artean. Kasu honetan, kordak ez dira oso agerian irudikatuak, bai aldiz tresnaren beraren dekorazio elementuak, arkuaren xehetasunak eta gorputzean ageri diren dekorazioak ere.

**Kornamusa** ageri zaigu berriz ere, bosgarren aingeruak jotzen duela. Lehen aipatu bezala, tresna oso erabilia izan zen Erdi Aroan zehar, hona bere esanguraren beste adibide bat.

Arkiboltaren eskuinaldeko besotik hasita, lehenengoak **zitola** jotzen du. Kordofono pultsatua, hau ere gitarraren familiako musika-tresna litzateke. Erresonantzia-kutxa estuagoa, karratuagoa, baina tresna antzekoa. Aipatzekoa da, esaterako, XV. mendean, Nafarroako errege-gortean zitola-joleitsu bat zegoela, Arnaut Guillem de Ursúa izenarekin dokumentatzen dena<sup>69</sup>.

Bigarrenak **arpa** jotzen du, Lizarrako San Migel elizako ataurrean ageri den antzerakoa (ikus. 2. irudia).

---

<sup>66</sup> GUEMBERO-USTÁRROZ, M., *op. cit.*, 39 orr.

<sup>67</sup> “Órgano portativo”, <http://www.capillademusicapamplona.com/iconografia-musical/organo-portativo/> (2017ko maiatzaren 8an kontsultatua).

<sup>68</sup> Izen honekin ageri da Iruñeko Katedralaren Musika-kaperaren webgunean: “Laúd aguitarrado”, <http://www.capillademusicapamplona.com/iconografia-musical/laud-aguitarrado/> (2017ko maiatzaren 8an kontsultatua).

<sup>69</sup> “Cítola”, <http://www.capillademusicapamplona.com/iconografia-musical/citola/> (2017ko maiatzaren 8an kontsultatua).



7. **IRUDIA.** Jacques Peruten Epifaniako zarrabetearen berreraikuntza. iruñeko Katedraleko Musika-kaperaren egoitzan gordetzen da.

Hirugarrenez, **zarrabetea** edo zanfona jotzen duen aingerua dago<sup>70</sup>. Tresna honi erreferentzia egingo diogu. Aurretik ikusitako *organistrum*aren ondorengoa litzateke. Aurrekoaren ezaugarri berak mantentzen ditu, kutxa baten barruan dauden sokak gurpil baten eta egurrezko iltze batzuen bidez soinua sortzen da, baina kasu honetan zarrabetea pertsona bakar batek jo dezake. Tamaina txikikoa, gurpila biratu eta iltzeak saka ditzake esku bakoitzaz. Lizarrako San Migel elizako ataurrean ageri diren *organistrum*ekin konpara daiteke eta, hemen bai zuzenean ikus daiteke musika-tresna baten eboluzioa kronologian zehar. Esparru geografiko berean bi eredu hauek izanik, bi tresnak bere garaian jo izan ziren adibideak dira. Berriz ere, esan bezala, egunerokotasunaren adibideak, tresnen eboluzioa eskulturan islatua.

Bestalde, **gitarraren** aitzindaria izan daitekeena ageri zaigu honetan ere, laugarren aingeruak daramala. Egungo gitarraren irudi antzekoa, bere lehenetariko irudia azter dezakegu kasu honetan, interesgarria oso musika-tresnak izan duen eboluzioa ezagutzeko.

Azkenik, azkeneko aingerua **auloak** jotzen ageri da. Txirimiaren aitzindariak, fita bikoitzeko haizezko musika-tresna luzeak dira, egungo dultzainaren antzekoak. Peruten irudian aingeruak bana daramatza esku bakoitzean, eta bata bestea baino luzeagoa izaten zen, bere ezkerreko belaunean aulo baten kanpaia (azkeneko atal zabalagoa) ageri baita, aurreko zatia galdua dagoela. Tresna interesgarria, bikoitza baita eta biak batera jotzen baitzirelako.

Aipatzekoa da guztiz, ikusi berri ditugun musika-tresna guztien erreprodukzioak sortu dituela Jesús Reolid artisauak 2006. urteaz geroztik, hain maisutasunez izan zirelako irudikatuak, eta benetan tresnen zehaztasunak argiak izanik, hauek birsortzea ez da zaila izan (ikus. 7. irudia)<sup>71</sup>. Loriaren Ataurreko edota Lizarrako *organistrum*aren adibideak gogora ditzakegu honetan ere. Esan bezala, musika-tresneriaren

<sup>70</sup> Euskarazko izena *zarrabetea* izanik, egokiago deritzot izendapen hau ematea.

<sup>71</sup> GUEMBERO-USTÁRROZ, M., *op. cit.*, 38-39 orr.

aberastasunaren adibiderik esanguratsuen da zalantzarik gabe Jacques Perutek sorturiko aingeru-musikari hauena, tresna ezberdinak, bai sokazko zein haizezkoak, esparru berean guztiak modu ordenatu eta berdintsuan irudikatuak. Guztiek espazio bera dute, azpimarratzeko ideia, bada.

### ❖ Musikarien ikonografia bereziak

Nafarroako Erdi Aroko eskultura monumentalean ageri diren musikari guztiak ezin ditugu aztertu ezaugarri hauetako lan baten bidez, hasieran esan bezala; horregatik lehen ikuspegi batean azterketan gabilta. Halaber, jarraian bere interes historiko zein kulturalarengatik aipatzekoak diren adibide xumeago batzuk ikusteko parada izatea egokia litzateke.

#### *Arpa jotzen duen astoa*



8. **IRUDIA.** Lizarrako Nafarroako errege-erreginen Jauregia. Asto arpa-jotzailearen kapitela.

Lizarrako Nafarroako Errege-erreginen Jauregia lurraldean kontserbatzen den eraikin zibil erromaniko bakanetakoa da. XII.-XIII. mendeetan eraikia, Antso VI.a Jakitunaren garaian, Iruñeko eta Nafarroako errege-erreginen egoitza izan zen<sup>72</sup>. Zenbait leiho hirukoitzek osatzen duten konposizioan, hiruna zutabetxo dituztela, guztietan kapitelak dekoratuak

ageri dira gai ugariekin: guda-eszenak, irudi erlijiosoak, mitologia, etab. Horietako batean, jauregiaren erpin batean kokatzen den zutabe erraldoi baten kapitolean, moralaren inguruko gaiak ageri dira. Kasu honetan, erlijio-ideien eraginez ere, alferkeri eta nagikeriaren irudia ageri da, asto batek **arpa** jotzen duen bitartean, lehoi bat eserita bere aurrean. Kasu honetan, azpimarratzekoa da, beraz, nahiz eta moralaren garbitasuna eta erlijioaren goraipamena izan, musikaren presentzia. Horrela, aipatzekoa da eraikin zibiletan ere (eskultura monumentalaren kasuan, pintura ugari izan zirela baitakigu),

<sup>72</sup> FERNÁNDEZ-LADREDA, C. (zuz.), *El Arte Románico... op. cit.*, 293 orr.



musika-tresnak irudikatuak izan zirela. Gainera, arpari dagokionez, antzekotasunak oso agerikoak dira herri bereko San Migel elizako ataurrean ageri den tresna berarekin<sup>73</sup>.

### *Euskal Herriko lehen txistularia*

Zarrakaztelu aldean dagoen Olivako Monasterioan dagoen irudi bati egingo diogu erreferentzia. XIII. mendearen inguruan eraikia, zenbait atal XIV. mendekoak izanik, Nafarroan dauden monasterio zistertarren adibiderik esanguratsuenetarikoa dugu<sup>74</sup>. Eliza, klaustroa eta beste areto original ugari kontserbatzen dira, baita dekorazio oparoa ere. Horien artean, monasterioaren kanpoaldea inguratzen duten harburuetan dauden irudiak dira aipatzekoak. Ohikoak diren bekatuen irudiak, animalia eta munstroak, baita musikariak ere. Kasu, aipatzekoa da txistularia izan daitekeen irudia<sup>75</sup>. Izan ere, bere ezkerreko eskuaz txirula luze bat darama, eta eskuinekoaz danbor txiki bat jotzen ageri da, perkusiozko tresna hau bere ezkerreko besotik heltzen delarik (ikus. 9.



9. IRUDIA. Olivako Monasterioko harburuko "txistularia".

irudia). Hots, egungo txistularien oso antzerako irudia. Gauzak horrela, Euskal Herrian ageri den txistulari baten lehen irudia izan daiteke.

### *Uxue, kornamusaren egoitza*

Nafarroako herri txiki honetan dagoen eliza-gotorlekua oso aztertua izan da bere esangurarengatik. Iruñeko zein Nafarroako errege-etxe guztiak pasa izan ziren bertatik, Uxueko Amabirjinari eskaintzak egitera. Gainera, eliza erromanikoak Gotikoan izan zituen gehitzeak ere bere ikuspegia handiagotu zuten, gotorleku edo gaztelu baten antzerako eraikin bat sortuz<sup>76</sup>. Gauzak horrela, elizaren bi portadetan musikarien irudi zenbait ageri dira, baina bietan ere musika tresna bera ageri da errepikatua: **kornamusa**. Zatzuko gaita, esan bezala, oso presente egon zen Erdi Aro osoan, baita errege-gortean ere. Aipatzekoak dira, bada, Uxueko bi kornamusa-jotzaileak, bi portadetan bana ageri baitira, oso modu onean kontserbatuak gainera. Azpimarratzekoa esparru berean

<sup>73</sup> *Ibid.*, 365 orr.

<sup>74</sup> *Ibid.*, 183-184 orr.

<sup>75</sup> SANCHEZ EKIZA, K., *Txuntxuneroak. Narrativas, identidades e ideologías en la historia de los txistularis*, Tafalla, Altaffaylla, 2005, 33-34 orr.

<sup>76</sup> FERNÁNDEZ-LADREDA, C. (zuz), *El Arte Gótico... op. cit.*, 259-261 orr.

musika-tresna bera bitan errepikatua izana, bere inguruan soilik tronpa edo txirula bezalako musika-tresna ohikoak baitaude, eta beste tresna bat irudikatu beharrean, bietan kornamusa hautatu zuten<sup>77</sup>. Ondorioztatzekoa da, beraz, tresna honek bai gortean zein eguneroko bizitzan izan zuen presentzia, Nafarroa osoan hain irudikatua izanik, baita Uxueko eliza-gotorlekua bezalako leku sinbolikoan birritan agertzen denez (ikus. 10. irudia).

Honekin, eraikuntza monumentaletatik at, interes historikoa duten beste zenbait irudi ere aztertzea egokia izan da, ikuspegi orokor honetan bestelako adibide esanguratsuak ere kontuan izatearren.



**10. IRUDIA.** Uxueko eliza-gotorlekuko kornamusa-jotzaileetako bat.

---

<sup>77</sup> Ikonografian ohikoak diren tresnak: tronpetak, flauta eta haizezko instrumentu luzeak.

## ONDORIOAK

Nafarroako Erdi Aroko eskultura monumentalean ageri den musika-tresnen ikuspegia oso aberatsa da, ikusi dugun legez. Halaber, metodologia azaltzerako orduan sorturiko atalean azaldu denez, bibliografia ez da sobera eskuzabala izan musikari hauen irudikapenak aztertzerako orduan. Soilik zenbait lan txikik egiten diete zuzenean erreferentzia, gainerakoek aipamen xumeren bat, ez besterik. Erdi Aroan musikak izan zuen garrantzia jakinda, honen errepresentazioak ugariak direla ez da harritzekoa, bada, eta baita monumentu esanguratsuenetan ere irudikatua izatea.

Lan honetan, beraz, eskultura monumentalean ageri diren zenbait musikarien lehen ikuspegia sortu da, estreinakoz, modu xume eta labur batean, zuzenean ageri diren ikonografieiei loturik ere. Horrela, artegileek irudikatzerako orduan izan zuten askatasun horren adibiderik nabarmenena da. Elizak ezarritako ikonografiaren baitan, musikariak irudikatzerako orduan modu enpirikoan ikusitako hori zizelkatu zuten, euren errealitatearen eta imajinazioaren isla, bada. Bestetik, ez dira urriak, ezta kalitate txarrekoak ere irudikatutako musikari eta tresna hauek. Ikusi dugunez, Lizarrako San Migel elizako ataurrean dauden musikariak erreferente izan dira musika-tresnen ikasketarako, *organistrum*aren adibidearekin izan denez. Are handiagoa izan da, bestalde, Iruñeko Katedraleko klaustroko Jacques Peruten Epifaniaren aingeru-musikarien irudiekin, non tresna hauen kalitatea hain handia den, tresna guztien berreraikitzeak posible izan direla. Musika-tresna ugarirekin, hauen aberastasuna ere aipatzekoa da. Nafarroa Donejakue Bideko lurralde indartsua izanik, kanpotik zein bertatik ekarritako tresnak egunerokoan ibili izan ziren kaleetan zehar. Eta hauek, noski, betikotuak, eskulturan zizelkatuak.

Aberastasun hau izan dadila, hain zuzen, Artearen Historian aztertu gabe dauden hainbat eta hainbat atal horien sakontzean bultzatzen dituenen argudioa, hain esanguratsua eta agerikoa den musikarien irudikapenari dagokionez ere, lan handia geratzen baita irudi hauen azterketarako. Eta ez gara oso urruti joan behar, gurean materiala soberan daukagu musikarien irudikapena aztertzekoa eta, beraz, musikaren eboluzioa eta egunerokotasun hori ezagutzeko ere.

Nafarroa, arragoa.

## **BIBLIOGRAFIA**

ALONSO Y GARCÍA DEL PULGAR, T. (zuz.), “Iconografía Musical de Navarra. Merindad de Tudela”, *Cuadernos de Sección del Folklore*, 3, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1990, 236-282 orr.

ALONSO Y GARCÍA DEL PULGAR, T. (zuz.), “Iconografía Musical de Navarra. Merindad de Estella”, *Cuadernos de Sección del Folklore*, 4, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1991, 125-166 orr.

ANGLÉS, H., *Historia de la música medieval en Navarra*, Iruñea, Nafarroako Foru Diputazioa, 1970.

CARRASCO PÉREZ, J. (zuz.), *Historia ilustrada de Navarra 1. Edades Antigua y Media*, Iruñea, Diario de Navarra, 1993.

FERNÁNDEZ-LADREDA, C. (zuz), *El Arte Gótico en Navarra*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2015.

FERNÁNDEZ-LADREDA, C. (zuz), *El Arte Románico en Navarra*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2002.

FERNÁNDEZ-LADREDA, C., *Iconografía musical de la Catedral de Pamplona*, Iruñea, Iruñeko Katedraleko Musika-Kapera, 2004.

GUEMBERO-USTÁRROZ, M., *Navarra. Música*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, 2017

IRIBARREN, J. M., “Estampas del Folklore navarro”, *Príncipe de Viana*, 17, Iruñea, Príncipe de Viana Instituzioa, 1944, 393-420 orr.

LÓPEZ-CALO, J., *La música medieval en Galicia*, A Coruña, Pedro Barrie de la Maza Fundazioa, 1982.

PEDRELL, F., *Diccionario técnico de la música*, Valladolid, Maxtor, 2009.

SANCHEZ EKIZA, K., *Txuntxuneroak. Narrativas, identidades e ideologías en la historia de los txistularis*, Tafalla, Alaffaylla, 2005.

TRANCHEFORT, F.-R., *Los instrumentos musicales en el mundo*, Madril, Alianza, 1985.

URBELTZ NAVARRO, J. A. , “Notas sobre el *xirolarru* en el País Vasco”, *Cuadernos de Sección del Folklore*, 1, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1983, 175-215 orr.

VILLANUEVA, C. (zuz.), *El Pórtico de la Gloria: música, arte y pensamiento*, Konpostelako Donejakue, Konpostelako Donejakueko Unibertsitatea, 1988.

## **WEBGRAFIA**

“Cítola”, <http://www.capillademusicapamplona.com/iconografia-musical/citola/> (2017ko maiatzaren 8an kontsultatua).

“*De la piedra a la madera* o cómo dar vida a los instrumentos medievales”, <http://www.musicaantigua.com/de-la-piedra-a-la-madera-o-como-dar-vida-a-los-instrumentos-medievales/> (2017ko apirilaren 19an kontsultatua).

“Laúd aguitarrado”, <http://www.capillademusicapamplona.com/iconografia-musical/laud-aguitarrado/> (2017ko maiatzaren 8an kontsultatua).

“Órgano portativo”, <http://www.capillademusicapamplona.com/iconografia-musical/organo-portativo/> (2017ko maiatzaren 8an kontsultatua).

“Presentada la portada de Santa María de Olite tras su restauración”, <http://www.noticiasdenavarra.com/2017/03/04/vecinos/presentada-la-portada-de-santa-maria-de-olite-tras-su-restauracionsanta-maria-de-olite-se> (2017ko apirilaren 19an kontsultatua).

“Primeras manifestaciones musicales en la Catedral”, <http://www.capillademusicapamplona.com/historia/origenes/primeras-manifestaciones-musicales-en-la-catedral/> (2017ko maiatzaren 5ean kontsultatua).